

Lauargi taldea gara eta taldea honako lau kide hauek osatzen dugu: Sara Arostegi Fundazuri, Ainhoa Dobaran Legarreta, Iraia Gamiz Macias eta Inaxio Goiti Mendia. Durangon kokatuta dagoen Ibaizabal Ikastolan goi-mailako gizarteratze zikloa ikasten ari gara eta jada zikloko azkenengo txanpan aurkitzen gara.

Ideia hautatzeko, gure ingurua behatu genuen eta hainbat behar identifikatu izan genituen. Denei atentzioa eman zigun gai batekin egin genuen topo, **osasun mentala**, hain zuzen ere. Osasun mentala lantzeko eta bere garrantziaz ohartzeko espazio bat eraikitzea erabaki genuen. Pertsona orok osasun mentala zaintzeko beharra baitu. Aldi berean, proiektu honetan, gaur egun osasun mentalarekiko dagoen estigma hautsi nahi izan dugu. Hori dela eta, aukerak eta proposamen ezberdinak bilatzen hasi ginen, Lauargi proiektua osotasunean landu arte.

Talde-kide bakoitzak, modu esanguratsuan parte hartu du proiektu honen sorkuntzan. Kide bakoitzak izan duen dedikazioari eta talde-lanari esker, oztopo desberdinak gainditzea, bizitako esperientzia bakoitzetik ikastea eta irtenbide eraginkorrak garatzea lortu izan dugu. Aldi berean, bakoitzaren motibazioa eta ikuspegi desberdinak oso lagungarriak izan dira proiektu hau modu egokian abian jartzeko.